


HEZKUNTZA EZ-FORMALEKO EREMUETAN INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

(AISIALDIRAKO ETA KIROLETARAKO GUNEAK)

PREBENTZIOA. DETEKZIOA. ESKU-HARTZEA





SARRERA

Eskuartean daukagun dokumentu hau, hezkuntza ez formalaren esparrutik kanpo eman daitekeen jazarpen egoera baten aurrean nola erantzun jakiteko sortu da. Eskoriatzako zenbait udal zerbitzuren artean egin da: Gazteria eta Hezkuntza Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuak, Prebentzio Zerbitzua, Zerbitzu Psikosoziala eta Soziohezitzalea eta Gaztelekua. Lan talde horri **“tratu onen aldeko mahaia”** izena jarri diogu.

Bidean, Luis Ezeiza eta Arizmendi ikastolarekin jarri gara harremanetan gure egitasmoaren berri emateko. Luis Ezeiza eskolak Eusko Jaurlaritzak ikastetxeei begira arautua duen jazarpen protokoloa azaldu digu, eta hori oinarritzat hartuz osatu dugu datozen lerroetan jasotzen den proposamena.

Ibilbidean zehar ohartu gara nolako garrantzia duen, prebentzio gisa, gatazka egoera bat zer den jakitea, gatazka eta jazarpen egoeren arteko desberdintasunak zeintzuk diren argi izatea eta tratu onak sustatzea.

Dena den, aitortu behar dugu hezkuntza ez formalaren esparrutik kanpoko zerbitzuetan jazarpen egoera bat atzematea zaila dela ondorioztatu dugula, gure zerbitzuetan astean oso denbora gutxi ematen baitute haur eta nerabeek. Hala ere, interesgarria iruditu zaigu gaia eskuartean hartu eta susmo baten aurrean gaudenean nola erantzun dezakegun jakitea, eta eskuhartzea nolakoa izan behar den denon artean adostea; izan ere, eskolan ondo bideratuta dagoen arren, hezkuntza ez formaleko zerbitzuetan horrelako egoera baten aurrean erantzuten jakin beharko genuelakoan gaude.

Aurrez aipatu bezala, harreman onen sustapenaren garrantziaz ere ohartu gara, prebentzio gisa daukan indarraz, alegia, eta horretan ere zentratzen saiatuko gara hemendik aurrera.

Datozen orriean jazarpenaren definizioari helduko diogu, jazarpen egoera baten aurrean nola jokatuko dugun zehaztuko da eta harreman onak era iraunkorrean sustatzeko neurri batzuk ere proposatuko ditugu.



LEGE ESPARRUA

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak honako hau ezartzen du, kirolaren eta aisialdiaren esparruei dagokienez:

47. artikulua. Kiroleko eta aisialdiko indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloak.

Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, kirol-eremuan eta aisialdi-eremuan ingurune seguru bat eraikitzeko jarduketak bilduko dituzten jarduera-protokoloak arautuko dituzte. Jarduera horiek kirol- eta aisialdi-eremuan haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta esku hartzeko jarraitu behar dira.

48. artikulua. Adingabeekin kirol- edo aisialdi-jarduerak egin ohi dituzten erakundeak.

Adingabeekin kirol- edo aisialdi-jarduerak egin ohi dituzten erakundeek honako betebehar hauek dituzte, besteak beste:

- Administrazio publikoek kirolaren eta aisialdiaren esparruan hartzen dituzten aurreko artikuluan aipatzen diren jarduera-protokoloak aplikatzea.
- Monitorizazio-sistema bat ezartzea, adingabeen babesari buruzko aurreko protokoloak betetzen direla ziurtatzeko.
- Beharrezko neurriak hartzea kirola, jarduera fisikoa, kultura eta aisialdia ez daitezen izan diskriminazio-egoera adinagatik, arrazagatik, desgaitasunagatik, sexu-orientazioagatik, sexu-identitateagatik edo genero-adierazpenagatik, edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik; horretarako, umeekin eta nerabeekin lan egin beharko da, bai eta haien familia eta profesionalekin ere, irainik eta adierazpen iraingarrik eta diskriminatzailerik ez erabiltzeko.

Hori dela eta, Eskoriatzako Udalak KONPROMISOA hartu du egungo araudia betetzeko babes- eta jarduera-protokolo hau egin eta ezartzeko.



HELBURUAK

- Testuinguru horietan, haur eta nerabeentzako **ingurune segurua sortzea**, haur eta nerabeak modu egokian garatu ahal izateko.
- Adingabeen osotasun fisikoa, psikikoa eta morala babestea, edozein indarkeria-motaren aurrean.
- **Tratu ona eta jazarpen-egoeren prebentzia sustatzea.**

PROTOKOLOAREN PRINTZIPIOAK

1. TRATU ONA. Aurreikusitako edozein jarduera adingabeen eskubideekiko eta duintasunarekiko errespetuan eta bizikidetza egokian oinarrituta egin behar da beraien garapen osoa bermatu ahal izateko.
2. ADINGABEEN INTERES GORENA. Haiekin egiten diren jarduera guztietan, beste edozeren gainetik jarri beharko da haien interesa.
3. ANIZTASUNA ERRESPETATZEA. Kulturala, funtzionala, erlijiosoa, jatorrizkoa, egoera sozio-ekonomikoa. Inolako arrazoirengatik ez diskriminatzea sustatzea, genero-ikuspegia txertatuta.
4. ADINGABEEN SEXU-ORIENTAZIOA ETA GENERO-IDENTITATEA ERRESPETATZEA, bai eta beharrezko laguntha jasotzea ere, arrazoi horiengatik diskriminazioaren edo indarkeriaren biktima direnean.
5. ENTZUNAK IZATEKO ESKUBIDEA. Funtsezko printzipoa da, nagusia; adingabeek eta nerabeek beraiei eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzeko duten eskubidea bermatu behar da.
6. PREBENTZIOAREN PREBALENTZIA. Prebentzia da indarkeria saihesteko modurik onena. Protokoloaren helburua ez da zigortzea, baizik eta testuinguru horietan indarkeria prebenitzeko eta desagerrazteko kultura bat eratzea eta sortzea.
7. KONFIDENTZIALITASUNA. Jarduketa guztiak konfidentzialitasuna ahalik eta gehien zaintzeko printzipoarekin egingo dira.



APLIKAZIO EREMUA

Eskoriatzako Udalak gune seguruak, babesak emango dutenak eta indarkeriarik gabekoak sustatzeko betebeharra eta konpromisoa du. Hori dela eta, protokolo hau **zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketako udal-instalazioetan aplikatuko da**, eta baita herrian adingabeei edo pertsona kalteberei zuzenduta dauden jardueretan ere, antolataileak protokolora atxiki nahi badira.

TRATU ONEN ALDEKO MAHAIA

MAHAI horrek gidatu eta kudeatuko du babes-estrategia, legean ezarritako irizpideak kontuan hartuta. Halaber, gaian adituak diren zerbitzu publiko, agintari eskudun eta gizarte zibileko erakunde guztiiek harremanetan jartzea, eta, beharrezkoa izanez gero, aholkua eta laguntza ere eskuat ahal izango zaio.

Eskoriatzako Gazteria eta Hezkuntza Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuek, Prebentzio Zerbitzua, Zerbitzu Psikosozial eta Soziohezitzaleak osatuko dute.

Gazteria eta Hezkuntza Zerbitzua izango da tratu onen aldeko mahaia lideratuko duena.

Eginkizun hauek ditu:

- Udalerrian adingabeei zuzendutako indarkeriaren aurkako babes-politiken garapena eta ezarprena gidatzea.
- Ezarritako posta elektronikoaren bidez iristen diren eskaerei erantzuna ematea: jazarpena@eskriatza.eus.
- Protokoloan aurreikusitako jarduera-prozedura izapideztea, beharrezkoa denean.
- Ezarritako prebentzio-neurrien ezarprena lideratzea.
- Protokoloa behar bezala ezartzen dela ziurtatzea, haren jarraipena egitea eta beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzak proposatzea.



KONTZEPTUAK: TRATU ONAK. INDARKERIA. JAZARPENA VERSUS GATAZKA...

Zer da jazarpena? Zertaz ari gara?

Jazarpena jatorrizko bullying hitzetik dator ingelesez bully, eta bully hitzak “harroputz” esan nahi du.

Jazarpenari buruz hitz egiten dugunean, eskola-jazarpenari eta eskola-eremuan gertatzen denari buruz hitz egiten dugu gehienetan, eta, protokolo guztiak esparru horretara bideratuta dauden arren, uste dugu aisiaaldiaren eremura ere zabal daitezkeela, eskolan gertatzen dena denbora librean ere gerta daitekeelako, eta alderantziz.

Ikastetxeetako ordezkariet beren esperientziatik azpimarratzen digute eskola ez dela leku isolatua, kalean gertatzen dena eskolara eramaten dela sarritan, eta alderantziz.

Jazarpena versus gatazka

Garrantzitsua da jazarpenaren eta gatazkaren arteko aldea ondo argitzea, askotan ez baita bien arteko bereizketarik egiten, eta gatazka bat jazarpena deitzen diogu, benetan zer den eta zer ondorio dituen kontuan hartu gabe.

Jazarpenari buruzko definizio ugari daude.

Olweus-ek, jazarpena ikertu duen aditu norvegiarrak, 1998an emandako definizioaren arabera, "*haur batek jazarpena jasaten du beste batek edo berdinenean talde batek bere aurkako ekintzak behin eta berriz egiten dituenean aldi batez*".

Gainera, botere-maila desberdinak egongo lirateke, hau da, biktimak zaitasunak izango lituzke testuinguru horretan defendatzeko.

Olweus-ena osatzen duen beste definizio bat aurkitu dugu. Honela dio: "Adostasuna dago eskola-jazarpeneko egoera baten ezaugarri espezifikoak, behin eta berriz eta denboran zehar gertatzea dela, helduen begiradatik urrun eta biktima babesgabe bat abusuz umiliatu eta menderatzeko asmoz (Avilés, 2006).

Ildo horretan, honako hau gehitu daiteke: «*ikasle batzuek beste batzuekiko erabiltzen duten boterea da, hezkuntza-etapa jakin batzuetan ematen dena, eta biktimizazio psikologikoa eragiten duena. Cerezok (2020) adierazten du ikasle batek beste ikaskide bat, normalean bera baino ahulagoari, eta bere ohiko biktima bihurtzen duenari, egindako tratu txar mota bat dela, oro har nahita egindakoa eta kaltegarria. Iraunkorra izaten da, eta asteak, hilabeteak edo urteak iraun dezake* ».



Berriagoa, baina ildo beretik doana, Ubietok, Almirallek, Aramburuk, Ramirezek, Roldanek eta Vilak (2016) diotena: "*jazarpenez hitz egiteko, erasotzailearen intenzionalitatea, jarraitutasuna, ekintzen iraunkortasuna eta erasotzailearen eta biktimaren arteko desoreka egon behar dira*".

Hainbat autorek adierazi dute oinarrizko ezaugarri batzuk bete behar direla jazarpenean eta esateko:

- **ERREPIKAPENA.** Denboran zehar gertatzen denean, hau da, jazarpenean iraunkorra eta errepikakorra denean.
- **ASMOA** dagoenean, hau da, beste pertsonari kalte egin nahi zaionean.
- **BOTERE DESOREKA.** Botere-maila desberdinak daudenean, hau da, botere-desoreka dagoenean eta biktima bere burua defendatzeko arazoak dituenean.
- **KALTEAK** gertatzen direnean.



Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, eskola-jazarpenean **denboran zehar behin eta berriz agertzen denean, helduen begiradatik urrun eta erasoan jasan duen pertsona umiliatzeko eta menderatzeko asmoz**.

Jazarpenean helburua haur edo nerabe talde bat izan daiteke, baina kasu gehienetan pertsona bakar baten aurkakoa da.



Jazarpen motak

Jazarpenaren sailkapen ugari daude, baina honako hauetan zentratuko gara:

Jazarpen fisikoa	Pertsonaren osotasun fisikoa kaltetzeko. Bi motatakoa izan daiteke: zuzena (bultza eta jo, ukabildak, ostikoak edo objektuak jaurti) edo zeharkakoa (biktimari objektuak ezkutatu, hautsi edo lapurtu). Jazarpen mota hori, batez ere, lehen hezkuntzako azken zikloetan gertatzen da, 10-12 urteko pertsonen artean.
Hitzezko jazarpena	Hitzaren bidez egiten da. Eta hau ere zuzena izan daiteke (ezizenak, irainak, isekak eta txantxak) edo zeharkakoa (zurrumurruak zabaltzea...). Adituek diote gehien gertatzen den jazarpen mota dela. Maiz, gutxiespen horiek jendaurrean gertatzen dira, etengabe, eta biktimak duen akats fisikoren batengatik. Mugikorra ere erabiltzen da hitzezko jazarpenerako.
Jazarpen psikologikoa	Osagai psikologikoari eta emozionalari eragiten dioten indarkeriazko jokabideak. Autoestimuarekin eta autokonfiantzarekin lotutako jazarpen mota bat da. Alderdi psikologikoa tratu txar mota guztietaan agertzen da.
Jazarpen soziala	Helburua biktima taldetik isolatzea eta bereiztea da, baztertuz eta estatus txarrean kokatuz.
Ziberjazarpena	Edozein abusu egiteko HIKTak (harremanetarako, informaziorako eta komunikaziorako teknologiak) erabiltzen dituena (2. eranskina).

Eskola-jazarpenean inplikatutako rolak, ezaugarriak eta ondorioak

Gure ustez, jarraian aurkezten den eskema (Bizikasi hezkuntza-ekimena) hezkuntza ez-formalaren eremura ere heda daiteke, eragile berberak eta antzeko ezaugarriak dituztenak daudelako:



Olweus-ek (1998) eta Ortegak (1994) egindako ikerketen arabera, jokabide oldarkorrik dituzten pertsonak, batez ere, mutilak edo gizonak dira. Beste ikerketa batzuen arabera (Smith, 1994), neskek elementu psikologiko gehiago erabiltzen dituzte eta modu sotilean erasotzen dute, ez mutilek bezain agerian.

Implikatuen artean, jokabide oldarkorrik dituzten gazteak, jazarpena jaso izandako gazteak eta ikusle gazteak daude. Gazte horiek, isiltasunaren izenean, txibatoak ez badira, begiratu besterik ez dute egiten, eta jokabide horrekin egoera betikotza lortzen dute.



Jazarpena jasotzen duen pertsonaren ohiko ezaugarriak

Edozein haur edo nerabe bihur daiteke biktima, baina batzuek aukera gehiago dituzte jazarpena jasotzeko, hainbat faktoreren ondorioz: desgaitasun fisiko edo psikiko bat, ikaskuntza-



prozesuaren atzerapen bat, ahozko hizkuntzarekin lotutako arazo oso nabarmenak edo eragiten errazak. Gainera, isolamendua, defentsa-gabezia edo baldintza horiekin lotutako beste edozein faktore izan daitezke arrisku-faktoreak, hala nola "desberdinak" (Martín, Martínez y Díaz, 2010) edo "desabantaila-egoeran" dagoen gutxiengo bateko kide izatea (Del Rey y Espino, 2022; Díaz, 2005). Profil horretan sartzen dira, halaber, aldez aurretik jazarpena jasan duten pertsonak, etnia edo kultura differentekoak edo bestelako joera erlijioso edo sexuala dutenak.

Biktimek izaten dituzten beste ezaugarri batzuk dira gizarte-trebetasun gutxiago dituztela, lotsatiagoak eta barnerakoagoak direla, autokonzeptu negatiboarekin eta autoestimu baxuarekin.

Generoari dagokionez, ohikoagoa da neskek hitzezko jazarpena jasatea eta mutilek indarkeria fisikoa.

Adinari dagokionez, ohikoagoa da egoera horrekin topo egitea Lehen Hezkuntzako azken ikasturteetan eta Bigarren Hezkuntzako lehenengoetan.

Jokabide oldarkorra duen pertsonaren ohiko ezaugarriak

Nortasun haserrazlea, erasokorra eta oldarkorra duen pertsona da, eta ez du bere nahiak adierazteko eta komunikatzeko trebetasun sozialik. Erasotuarekiko empatia emozionalik eza adierazten du. Jokabide bortitzak eta mehatxuzkoak ditu, tonu latzarekin, leku kanpoko txantxak eta irakasleen eta berdinien aurrean desafiozko jarrerak. Jokabide oldarkorra duenak indarkeriaz bere helburuak lortzen dituela uste du. Taldearen barruan estatusa lortzen du beldurraren bidez. Ez da oso tolerantea (Díaz, 2005).

Liderraren rol negatiboak izaten dira, fisikoki indartsuak dira, eta normalean ez du bakarka jarduten, laguntzaileak izaten ditu. Autoestimu txikia, jokabide disruptiboak eta erruduntasun-sentimendu txikia duten pertsonak dira.

Jazarpenaren fisikoaren ehunekoa handiagoa da gizonen artean, eta nesken artean, berriz, oso nabarmena da jazarpen psikologikoa.

Ikusleen ohiko ezaugarriak

Talde honetan sartzen ditugu jazarpen-egoera ezagutu eta hainbat modutan joka dezaketen jazarlearen eta biktimaren berdinak.

- Jazarleari aktiboki (jazarpena gauzatzen laguntzen dute) edo pasiboki (erasoak ikusi eta onartu egiten dituzte) laguntza.
- Jarrera epela mantenduz (neutral agertzen dira eta jarrera pasiboa izaten dute, askotan beldurragatik).
- Biktimari lagunduz (biktima jazarpenetik defendatzen dute eta enpatiaz jokatzen dute biktimarekin).



Argi dago, lehenengo eta bigarren kasuetan, biktimarekiko enpatia falta dutela eta gertatzen ari denari buruz isilik egongo direla. Eta, bigarren kasuan, beren burua babesten saiatzen direla.

Implikatutako pertsona helduak (irakasleak, familiak...)

Gurasoek eta tutoreek seme-alaben jarreretan eta portaeretan duten eraginagatik eta haien ongizatearekiko duten kezka eta erantzukizunagatik, funtzio garrantzitsua betetzen dute eskola-jazarpenaren aurkako prebentzioan eta borrokan.

Pertsona helduek ondo ulertzen dute eskola-jazarpenaren esanahia eta adingabeengan izan ditzaketen ondorio negatiboak (Sawyer, Mishna, Pepler, eta Wiener, 2011), baina, oro har, uste dute beren seme-alabak eskola-jazarpenean (biktima gisa eta jazarpenaren egile gisa) gutxiago implikatuta daudela haien adierazten dutena baino (Holt, Kaufman Kantor, & Finkelhor, 2009; Stockdale, Hangaduambo, Duys, Larson, & Sarvela, 2002).

Helduok, oro har, ez gara jabetzen jazarpen-egoeraz, hainbat arrazoirengatik. Monbuso txostenean (1994) jasotzen denez, guraso-figuren % 50,6k ez daki bere semea edo alaba jazarpen-egoeraren biktima izan denik, eta % 67,4k biktimak esanda jakitzen du zuzenean, eta ez ikastetxearen bidez.

Helduek beraien ardurapeko haurrek eskola-jazarpenean parte hartzen dutela ez jakitearen arrazoietako bat da haurrek, askotan, ez dizkietela beren esperientziak kontatzen. AEBetako ikasleen azterlan batean, inkestatuen erdiak baino gutxiagok (erasoa jasan duten nesken % 49k eta erasoja jasan duten mutilen % 38k) esan zuten ez zietela ezer kontatu gurasoei beren esperientziari buruz (Limber, Olweus, & Wang, 2012). Gainera, gurasoei eskola-jazarpenaren berri emateko aukerak behera egiten du adinarekin (Limber et al., 2012).

Horrek esan nahi du oso litekeena dela pertsona heldua konturatu orduko denbora luzez gertatu izana jazarpen egoera. Horregatik, garrantzitsua da pertsona helduek, erne egoteaz gain, haurrei eta nerabeei onartezinak diren jarreren eta harremanen berri ematea, eta egoera horiek salatzea zein garrantzitsua den jakinaztea, biktimari laguntzeaz gain, bizitzan zehar harreman osasuntsuak izan ditzaten.

Jazarpen-egoera baten ondorioak jazarpena jasotzen duen pertsona batengan

Jazarpenaren ondorio latzenak jazartuak pairatzen ditu, hala nola antsietatea, jazarpena gertatzen den espaziora joateko fobia, arrisku fisikoak eta, larriena, segurtasunik ezaren maila handiak. Olweusek adierazi du biktimak erasoari aurre egiteko duen ezintasunak ondorio negatiboak dituela bere autoestimuan, hala nola antsietateari erantzuteko ezintasuna, depresio sintomak eta, ondorioz, eskolan integratzeko zaitasunak. Norberak bere buruaz izan dezakeen irudia negatiboa izan daiteke eta gaitasun akademikoan, portaeran eta itxura fisikoan eragin dezake. Jokabide suizada bat ere egon daiteke azken muturrean.



Jazarpen-egoera batek pertsona oldarkor batengan dituen ondorioak

Jazartzailearenengen ere ondorio larriak izan ditzake bere portaerak, jazarpenaren bidez helburuak lortzen dituela ikus dezakeelako, gauzak lortzeko bidea hori dela ikasten duelako eta, muturrera iritsita, portaera deliktiboa izatera irits daitekeelako. Pertsona horrek ikusten du garatzen duen portaerarekin estatus bat lor dezakeela.

Indarkeriazko jokabideak denboran zehar mantentzera irits daiteke, ohiko jokabide-eredu gisa eta gehienetan osasuntsuak ez diren gizarte-harremanak ezartzeko mekanismo gisa.

Jazarpen-egoera batek ikuslearenengen dituen ondorioak

Jazarpen-egoera normalizatzera irits daiteke. Errepikatzen denean, ikusleak pentsa dezake biktimari ez diola eragiten eta ohitura dagoela. Enpatia gutxiago dute edo erasotzailearekiko mendekotasun-jarrera dute halakorik gerta ez dakion. Horren ondorioz, agian ez dira hain solidarioak izango, eta, batzuetan, indarkeria erabiliko dute beren helburuak lortzeko.

Jazarpenari buruzko ideia faltsuak

Ideia edo mito horiek oso zabalduta daude gizartean, eta hautsi egin behar dira harreman onak sustatu nahi baditugu.

- 1.- Haien arteko gauzak dira, eta hobe eurak bakarrik konpontzen badituzte.
- 2.- Gertatzen zaiona gertatzea merezi du, horren bila ibili delako.
- 3.- Hazteko prozesuaren parte da, nortasuna eraikitzen laguntzen du.
- 4.- Defendatzeko modurik onena erasoari erasoarekin erantzutea da.
- 5.- Tratu txarrak mutilen kontuak dira.
- 6.- Familia-arazoak dituzten edo auzo baztertuetan bizi diren mutilek bakarrik erasotzen dute.
- 7.- Biktimak pertsona kalteberak dira.
- 8.- Posizio neutrala da onena.
- 9.- Erasotzailea zigortu egin behar da.
- 10.- Bakarrik biktimari lagundu behar zaio.



JARDUTEKO PROTOKOLOA: PREBENTZIOA. DETEKZIOA. ESKU-HARTZEA

Protokolo honek ez du ordezkatzen eskola-esparruko jazarpen-protokoloa, ez eta udaleko gizarte-zerbitzuek haur, gazte eta familiekin egiten dituzten esku-hartze psikosozialak eta soziohezitzailak ere.

Une desberdinak aztertzen ditugu, zein baino zein garrantzitsuagoa:

1: INDARKERIAREN PREBENTZIOA

Protokolo honen funtsezko helburuetako bat prebentzioan eragitea da indarkeria-egoerak sainduko:

- Tratu ona sustatzea.
- Jardueretan gerta daitezkeen jazarpen-egoeretatik adingabeak babesten direla bermatzea.
- Tratu txarren, jazarpenaren eta edozein abusu-motaren zantzuaren aurrean jarduteko prozedura ezartzeari.
- Edozein indarkeria edo tratu txar motaren aurrean gaitzespeneko testuinguru soziala eta erantzun egokia sustatzea, bereziki indarkeria edo tratu txar hori adingabeei, nerabeei edota desgaituei eragindakoa bada.

Beraz, garrantzitsua da gomendio batzuk kontuan hartzea testuinguru horietan indarkeria prebenitzeko eta, horrela, berdinen arteko harremanak osasuntsuak eta seguruak izango diren espazioak bultzatzeko.

INDARKERIA PREBENITZEKO PROPOSAMENAK

Harreman onak sustatzeko hainbat proposamen:

1.- **"Babesgunea".** Bereizgarri hori duten pegatinak banatzea, jazarpen-egoerak hautemateko prestakuntzan eta sentsibilizazioan parte hartu duten zerbitzuetan jartzeko. Bereizgarri horiek dituzten zerbitzuak jazarpenaren aurkako guneak izango dira, eta gune segurua bermatuko dute.

2.- **Hezitzaileen eginkizunari garrantzia ematea.** Hezitzaile askok garrantzi handia dute adingabeen bizitzan, erreferente izatera irits daitezke, askotan oso hurbil sentitzen baitira. Horregatik, haurrek zerbitzu horietako langileak konplize gisa hartzea lortu behar dugu, eta edozein egoera desatsegin bizi dutenean haiengana jo dezaketela sentitzea.

3.- **Infografia:** Zerbitzuetan tratu onen eta jazarpen-salaketen kartelak jartzea. Kartelek jasoko dute zer den onargarria eta zer den onartezina bizikidetza on baterako.

4.- **"Jazarpenaren aurre egiteko irakurketa-txokoa".** Egutegiko egun esanguratsuen inguruan (Haurren Nazioarteko Eguna, Azaroaren 20a, Indarkeriaren eta Eskola Jazarpenaren Nazioarteko Eguna, Azaroaren 2a...) gaiarekin zerikusia duten liburuak aukeratuko ditu udal liburutegiak, eta



liburutegiko txoko bereziren batean jarriko dira nabarmenduta, jendeak irakur ditzan eta jazarpenari aurre egiteko gaitasunak eskura ditzan.

5.- "**Zineforum**". Filmak ikustea eta, ondoren, solasaldia, jazarpenaren gaian sakontzeko eta herritarrok kontzientziatzeko horrelako egoeretan jarduteak duen garrantziaz.

6- "**Jolas kooperatiboak**". Ahal den neurrian (Gazteleku, Ludoteka, kirol-klubak...), mugimenduzko jolasak egitea proposatuko da, lankidetza- eta konfiantza-jokabideak garatzeko.

7.- "**Bizitzarako trebetasunak**". Hezkuntza-programazioa duten hezkuntza ez-formaleko zerbitzuetan (Ludoteka, Gazteleku...), urtean zehar enpatia, gatazken konponketa egokia, aniztasunarekiko errespetua... sustatzen duten jarduerak eta dinamikak txertatzea.

2: INDARKERIA EDOTA JAZARPEN EGOERAK ANTZEMATEA

Zerbitzu batek jazarpenarekin lotutako jokabideak edo zantzuak ikusten baditu, lankideei jakinaraziko die (halakorik balego), egoera beha dezaten eta, behaketa eta bateratze-lana egin ondoren, lehen jazarpen zantzuak dauden ala ez erabaki dezaten.

Detektatzen laguntzeko, adingabe baten aurkako indarkeria-egoera baten berri ematen lagun dezaketen honako adierazle espezifiko eta ez-espezifiko hauetara jo daiteke:

- **Adierazle espezifikoak.**

- Adierazle fisiko zuzenak. Indarkeria-egoera agerian jartzen da, adingabearen ebidentzia fisikoak ikusita. Izan ere, begi hutsez ikus daitezke eta kanpotik ondo antzeman inolako esplorazio espezifikorik egin beharrik gabe (kolpe-zantzuak, ubeldurak...), gainera ez dute izaten justifikazio argirik; eta beraz, indarkeria-egoera posible baten adierazle izan daitezke.
- Berdinene arteko indarkeria-ekintza bat zuzenean behatzea.
- Egitateak ezagutaraztea: adingabe baten aurkako indarkeriatzat jo daitekeen gertaera bat jakinarazten denean gertatzen da. Errebelazioa honelakoa izan daiteke:
 - Zuzenekoa: indarkeriaren biktima azaldutakoa.
 - Zeharkakoa: hirugarren batek komunikatua.

- **Adierazle ez-espezifikoak.**

Indarkeria-egoera bat dagoela zuzenean eta berez zehazten ez duten seinale guztiak zantzu izan daitezke. Adierazle ez-espezifikoaren adibide batzuk:

- Justifikatu gabeko negarrak.
- Jardueretan parte hartzeari uko egitea.
- Ekipamenduko gune jakin batzuetara joateari uko egitea.
- Leku batean edo pertsona jakin batekin bakarrik geratzeko beldurra, normalean ez bezala.
- Jardueran zehar jarrera eta portaera bat-batean eta arrazoirik gabe aldatzea.



- Errendimendua justifikaziorik gabe jaistea.
- Sintoma psikosomatikoak (hau da, gorputzaren bidez adierazten den sufrimendua): lo-arazoak, amesgaiztoak, gose-eza eta elikadura-nahasmenduak, buruko edota tripako min errepijakorrik eta jarraituak kausa patologikorik gabe, nekea, kontrolik gabeko negarra, tristura, depresio-sintomak, antsietatea...
- Jokabide bortitzak edo agresibitate ezohikoak.
- Autolesio edo istrigu ugari.
- Alkohol edo droga kontsumoa, halakorik gertatzen bada.

ENTZUTE AKTIBOKO TEKNIKAK

Behaketaz gain, komunikazioaren bidez informazioa biltzeko aukera badugu, ENTZUTE AKTIBOA lortzen saiatu beharko genuke.

Gure galdezko moduak eta, batez ere, entzuteko moduak giro lasaia eragin dezakete, eta solaskideari gai deserosoei buruzko azalpenak emateko aukera eman.

- Kontuan izan behar dugu adingabea bizitzen ari dena ez dela minimizatu behar, bere kontatzeko moduak bere sufrimendu-mailari buruzko argibideak ematen baitizkigu, eta ezta maximizatu ere, ordura arte arazo izan ez dena arazo ez bihurtzeko eta hura jasaten duena berriz ez biktimizatzeko.
- Giro beroa sustatu: interesa, ulermen eta hurbiltasuna erakutsi. Kezka zintzoa adierazi, eta kontatzen dizuten bertsioa onartu, epaitu edo zalantzan jarri gabe.
- Solaskidea den bezala onartu, aurreiriztiak saihestuz. Batzuetan zaila gerta dakiguke. Horrelakoetan, baliagarria gerta dakiguke pentsatzea nola sentituko nintzatekeen ni haren lekuaren banengo?
- Ahotsa modulatuz hitz egin, abiadura moderatuarrekin, lasaitasuna transmitituz.
- Hitzik gabeko komunikazioa zaindu: arreta ematen diogun pertsonari zuzendutako begirada eta gorputz-jarrera. Ez ahaztu noizean behin buruarekin baietz esatea.
- Ez eten. Elkarrizketa gaitik ateratzen bada, zeharka berri zere bidera dezakegu.
- Erabakiak hartzea erraztu esaiozu elkarrizketa gai horretara eramanez galdera orokorrak eginda: "Zerbait egitea pentsatu duzu?", "Nola jarduteko asmoa duzu?", "Zer irtenbiderekin saiatu nahi duzu?"
- Jarduera-ildo bakoitzaren alde onak eta txarrak eztaba idatzi, eta baita horietako bakoitzarekin, ikuspuntu errealistik, lor ditzakegun emaitzak ere.
- Orientabideak emateko unean, hobe da iradokitzea eta gonbidatzea, eta beti beste pertsonari uztea bere erabakiak hartzen. Adibidez: "Agian ondo legoke....., zer iruditzen zaizu?", "Pentsatu duzu espezialista batengana jotzea?", "Zer aukera planteatu dituzu egoera konpontzeko?" "Zergatik ez diozu familiartekoren bati edo konfiantzazko pertsonaren bati kontatzen?"...
- Elkarrizketa hitz egindakoaren laburpen batekin amaitzen da, lortutako ondorio nagusiak eta ekintza egingarrienak azpimarratuz.
- Jarraipena egin: ez dago soberan norberaren burua eskaintza gaia komentatzen jarraitzeko, berak hala behar badu.
- Adingabea hitz egitera gonbidatzen duten galdera orokorrak planteatu: "Nola zaude?", "Nolakoa da besteekin duzun harremana...?"



- Nabarmendu garrantzitsuak iruditzen zaizkizun elkarritzketaren alderdi emozionalak: "Oso kezkatuta sentitzen zaitut, triste...", "Pentsatzen dut asko sufritzen ari zarela..."...
- Argitu eta zehaztu kontakizuna: "Zeri buruz ari zara zehazki..... diozunean?", "Noiz izan zen gertakaria"... Horretarako, adibide zehatzak eskatu.
- Entzuten duzuna zure hitzkin birformulatu eta partekatu beste pertsonarekin: "Gaizki ulertu ez badut, esan didazu, hala al da?".
- Ez ahaztu elkarritzeta animo edo errefortzu positiboko hitz batzuekin amaitzea.

SAIHESTU BEHARREKO AKATSAK

- Besteari eten hitz egiten ari denean.
- Gure ikuspuntua inposatzea.
- "Ez da hainbesterako" bezalako adierazpenak...
- Irtenbideak eskaintza aurretik entzun gabe.
- Bere ekintzak kritikatza, zalantzan jartzea, epaitzea.
- Egoeraren errudunak bilatzen jardutea.
- Jardutera edo neurriak hartzen behartzea. Pertsonalki neurri horiek beharrezkoak direla iruditu arren, batzuetan erabakiak hartzeko nolabaiteko "hausnarketa" behar da.
- "Bai ala ez" erantzun beharreko galdera asko planteatzea. Hobe da galdera irekiak egitea.
- «zergatik... ?» galderan oinarritutako galderak egitea, beste pertsona defentsiban jartzen baitute.
- Beste kasu batzuekiko antzekotasunean oinarritutako ondorio azkarrak ateratzea: kasu bakoitza bakarra eta konplexua da. Baliteke gure hasierako impresioa azkenean aurkituko dugunaren oso adierazgarri ez izatea.

Behaketaren eta informazio-osagarriaren ondoren adingabe baten aurkako indarkeria-egoera egon daitekeela ondoriozta daitekeen indarkeriaren adierazle espezifikoren bat edo zenbait zeinu ez-espezifiko hautemanez gero, TRATU ONEN ALDEKO MAHAIAK INDARKERIAREN AURKA JARDUTEKO PROTOKOLOA AKTIBATUKO DU, eta, horrekin batera, jarduteko neurriak aplikatuko dira.

3: ESKUHARTZEA ETA NEURRI HEZIGARRIAK

Behaketaren ondorioz bildutako informazioa TRATU ONEN ALDEKO MAHAIAREKIN partekatzeko unea da, eta, horrela, jarduteko protokoloa aktibatzeko.

Azkenean, berdin arteko jazarpen-kasua bada, argi dago kasua konpontzea ez dagoela hezkuntza ez-formaleko zerbitzuen esku. Jazarpena pareko kideen arteko arazo bat da, hainbat testuingurutan gertatzen dena: eskolan, kirol-taldean, aisialdi-taldean, eta abar; eta konponbideak, batetik, irakasleen, begiraleen eta beste profesional batzuen inplikazioa eskatzen du, eta, bestetik, hainbat testuingurutan bizikidetza hobetzeko lana.



Jarraitu beharreko urratsak:

1. BALIZKO JAZARPEN EGOERAREN IDENTIFIKAZIOA.

Jazarpena antzeman duen zerbitzuak **esku hartzeko eskaria fitxa** betetzen du (1. eranskina).

Fitxa horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:

- Eskaeraren jatorria: esku hartza eskatzen duen zerbitzua.
- Ustez erasoja jaso duen adingabearren eta ustez eraso egin duen adingabearren datuak.
- Behaketaren eta jasotako beste informazio batzuen ondoriozko zantzuak.

Informazio hori jasotzea, beharrezkoa izango da:

- Biktimarekin hitz egitea, zer gertatu den eta behin baino gehiagotan gertatu den argitzeko.
- Biktimaren lagunekin hitz egitea, informazioa emateko.
- Erasoaren eragilearekin hitz egitea, erasoaren arrazoia ezagutzeko eta eraso zenbat aldiz errepikatu den ikertzeko.
- Erasoaren eragilearen lagunekin hitz egitea, informazioa jasotzea.

2. TRATU ONEN ALDEKO MAHAIARI JAKINARAZTEA.

Esku hartzeko eskaria fitxa honekin, zerbitzuak MAHAIaren bilera eskatuko du informazioa zabaltzeko hurrengo urratsak ezartzeko eta, beharrezko bada, behaketarekin jarraitzen.

Beharrezko/posiblea bada, beste eragile batzuei (ikastetxea...) egoeraren berri eman, beste testuinguru batzuetan ere gertatu den eta jada protokoloren bat aktibatuta dagoen jakiteko.

Urrats horretan oso garrantzitsua da zehaztea nork hartzen duen bere gain lidergoa eta MAHAIKO kide bakoitzak, bere rolaren arabera, zer zeregin hartzen duen bere gain.

Bilera-akta bat egingo da, zereginak, arduradunak eta epeak zehazteko.

3. BEHAKETAREN ONDOREN BILDUTAKO DATU GUZTIEN AZTERKETA.

Bildutako informazio guztiarekin, berdin arteko gatazka edo jazarpenegoera den zehazteko unea da. Erantzun beharreko funtsezko galdera batzuk hauek izan daitezke:

Jazarpeneegoera baten aurrean gaude ala ez?

Kontuan izan beharko genuke jazarparen oinarrizko elementuak agertzen diren:

- Nahita aukeratutako pertsona bat erasotzen dioten erasotzaileak agertzen dira.
- Erasoak behin eta berriz gertatzen direla ikusten dugu.
- Biktima defentsarik gabe dago, ezin du bere burua defendatu edo ez daki.



- Kalteak daude (beraz, ez dira jolasak edo txantxak).
- Indarren desoreka dago.

Zenbateraino da larria egoera?

Orientabide gisa, honako hauetan zehaztu beharko ditugu:

- Ezagutzen ditugun erasoen larritasuna.
- Erasoa jasotzen ari den pertsonaren egoera fisikoan eta psikologikoan agertutako eraginak.
- Eta biktima zenbat denbora daraman jazarpena jasaten.

Larritasuna ezagutzea garrantzitsua da, aholkatu beharreko esku-hartzearen bitartekoak edo premia baldintzatzen baititu: zenbat eta intentsitate eta iraupen handiagoa izan, orduan eta eragin handiagoa jazarpena jasaten duen pertsonarengan.

Egindako oharren eta ondorioen laburpena jasoko duen **bilera-akta** egingo da: gatazka da/jazarpena da.

4. ONDORIOZTATZEN BADA BERDINEN ARTEKO GATAZKA DELA.

Ziur asko, gure egitekoa (tratu onen aldeko mahaiarena eta zerbitzuena) egoera horretan adingabeari ingurune seguru bat eskaintza izango da, non dituen zaitasunak adierazi ahal izango dituen.

Lantaldeak zenbait ekintza pentsatuko ditu egoerari erantzuteko, eta egoerari egokitutako esku-hartze hezigarria egingo du (**NEURRI HEZIGARRIAK**).

NOLA LAGUNDU ERASOTUARI?

- Erasoa jasan duen pertsonari **babes-eremu** bat eskainita. Gure zerbitzuetan lekua izan behar du eta zainduta sentitu behar du.
- Gertu gaudela sentitu behar du, eta hitz egin nahi duenean, **zerbitzuko erreferentziazko pertsonaren laguntza** izan dezakeela, horren arduretako bat izanik erasoa jasan duen pertsona hurbileti behatzea zerbitzuan dagoen bitartean.
- Jarrera oldarkorra izan duenarekiko denbora batez, distantzia bat hartzea komeni dela uste dugu, eta leku beretan **elkarrekin ez egotea bermatu** behar dugu.

NOLA LAGUNDU ERASOTZAILEARI? ZER EGIN DAITEKE?

Lehenik eta behin, esan behar dugu garrantzitsua dela jokabidea eta pertsona bereiztea, garrantzitsua baita jakitea arazoa ez dela pertsona, haren portaera baizik, eta hori alda daitekeela.

- Gertatutakoaren inguruau darabilzagun datuetan oinarrituta, egindakoaren onarprena bultzatu behar dugu, **gertatutakoaz hausnartzen lagundu** eta prozesu honetan gure lankidetza eskaini.



- Testuinguru horretan, garrantzitsua da **kontzientziazoa**. Ohartarazi behar diogu jokabide horiek arriskutsuak direla, ez bakarrik jokabide oldakorra duenarentzat, baita jokabide hori jasotzen duenarentzat ere.
- Bide hori egiteko, garrantzitsua da arrazoietan sakontzea, eta aztertzen ari garen horretan aurkitzen dugunak hurrengo urratsa zehazten lagunduko digu; adibidez, aldaketa-aholkuak proposatzen jokabide egokiak izateko eta horretan trebatzeko.
- Nerabeari ahalik eta testuinguru lasaiena eskaintza egoera guztiun artean bideratzeko.

NOLA LAGUNDU IKUSLEARI? ZER EGIN DAITEKE?

Ikusleekin sendo eta etengabe lan egin behar da, horiek baitira jazarpen-testuinguru bat aldatzeko funtsezko pertsonak.

Ideia nagusia **pasibotasunak duen eragin kaltegarria kontzientziatzea** da, sakon lantzea, eta horretarako ideia jakin batzuk hautsi behar dira.

- Adibidez, azpimarratu behar da egoera bat **salatza pertsona solidarioa izatea dela**, eta ez txibatoa. Ikusarazi behar zaie inguruan dugun guztiak eragiten digula eta etengabeko jazarpen-egoeran egoteak egoera hori normalizatza eta egiturazkoa bihurtzea ekar dezakeela.
- Halaber, komenigarritzat jotzen dugu **jokabideen arrazoiei buruzko hausnarketa bultzatzea**, gaiari buruz hitz egiteko eta egoera berriak prebenitzeko.

Gatazkak bere horretan jarraitzen badu, nahiz eta zerbitzutik ahaleginak egin, **unea da familiarekin harremanetan jartzeko eta gertatzen ari dena jakinarazteko**. Tratamendua beste edozein portaera disruptiboren aurrean egingo litzatekeen bera izango litzateke.

5. ONDORIOZTATZEN BADA JAZARPEN-EGOERA DELA.

Esku-hartzea dagozkien balibideetara bideratzea (gizarte-zerbitzuak, ikastetxea...), hezkuntza- eta lege-neurriak har ditzaten.

Gainera, **adingabeak direnez, lehenengo urratsa familiarekin edota legezko tutoreekin harremanetan jartza izango da**. Kasu bakoitzean harreman horren arduraduna nor den zehaztu beharko da.

Une horretatik aurrera, esku-hartzearen ardura hartu duen zerbitzuak, dagokion Jazarpen Protokoloa aktibatuko du.

Gehienetan, hemen amaitzen da detekzio goiztiarra egin duten zerbitzuen esku-hartzea.

Gehienetan, jazarpen-kasuak ikastetxeetan gertatzen dira, eta han konpondu beharko lirateke; hala ere, logikoena beste testuinguru batuetan ere errepikatzea da, hala nola kirol- eta aisialdi-guneetan, eskolaz kanpokoetan...

Horregatik, beharrezkoa balitz, egoera detektatzen duen zerbitzuak **premiazko behin-behineko**



neurriak hartuko ditu ustez erasoa jasan duen pertsona babesteko edo erasoak saihesteko, esaterako, honako hauek:

- Erasoa jasan duen pertsona bereziki zaintza.
- Erasoa jasan duen pertsonari erreferentziakoa figura bat eskaintza.
- Erasotuari autobabeserako jarraibideak ematea.
- Lagunak zaintzan inplikatza.


Baita jokabide oldakorrak ustez izan dituenari/ditutzenei zuzendutako neurriak ere:

- Erasotzailea gertutik zaintza.
- Zerbitzuan onartzen ez diren jokabideei buruzko azalpenak ematea, onartzen denaren mugak adieraziz eta arazoaren larritasunaz ohartaraziz.
- Errespetuzko harreman-konpromisoak eskatzea eta egoerari aurre egiteko zer neurri hartzeko prest dagoen erabakitzea.



PROZESUAREN ESKEMA ETA BERE TEMPORALIZAZIOA

Jarraian, prozesu honen mugarririk nagusiak aurkezten dira, fase bakoitzaren temporalizazioarekin batera:





1. ERANSKINA: ESKU-HARTZEKO ESKAERA FITXA

Zerbitzuaren datuak/eskaera egiten duen zerbitzua

DATA:	ESKAERA EGITEN DUEN ZERBITZUA:
IZEN ABIZENAK:	KARGUA:
TEL.: E-MAILA:	GAZTEAREKIN HARREMANA:

Inplikatutako pertsonen identifikazio-datuak

Gaztearen izen abizenak	
Adina	
Ikastetxea	
Maila/Taldea	

(adingabe bakoitzeko taula bat betetzea)

Ustezko jazarpenari buruz jasotako informazioa. (*Konfidentzialtasuna bermatuko da eta kontuan hartuko da adingabeekin zerikusia duten gai guziak kontu osoz tratatu behar direla*) (*Informazio hori zerbitzuko profesionalek behatzen duten edo kanpoko pertsonak komunikatzen duen zehatztuko da*) (*Jakinarazten bada, ahalik eta objektibotasun handienarekin jasoko da*)



Non gertatu da?

Intentzionalitaterik egon da?

Botere-desberdintasunik egon al da?

Min eragiteko asmorik egon al da?

Pertsonalizaziorik egon al da?

Errepikapenik egon da?



Biktimaren bertsioa

Biktimaren lagunen bertsioa

Erasotzailearen bertsioa

Erasotzailearen lagunen bertsioa



JAZARPENA dagoela pentsatzeko ZANTZUAK

	BAI	EZ	BEHINGOA	ERREPIKATUTA	DATURIK GABE
Eremu personalean: Arreta deitzen saiatzen da etengabe Sentimendua adierazten ditu Umore aldaketa Tristura Somatizazioa Bakardadea Uzkurtasuna					
Eremu sozialean: Lagunak ditu, beste haur/nerabeekin ikastolatik kanpo harremanak ditu Bere berdinekin erraz egiten ditu harremanak Besteak errespetatzen ditu Sare sozialen erabilpen egokia egiten du					
Familia eremua: Bere gurasoekin harreman ona mantentzen du					
Aisialdi eremua Herriko zerbitzuetan parte hartzen du? Kalean behar beste denbora pasatzen du? Etxetik ateratzen da?					
Bazterketa eta marjinazio soziala Bazterketa (pasiboa). Parte hartzen ez uztea (aktiboa). Sexua, arraza, gaitasun aldetik... diskriminatzea.					
Hitzezko erasoa Iraintzea (zuzena). Norbaiti buruz gaizki esaka aritza (zeharkakoa). Goitizenak jartza (mistroa).					
Zeharkako eraso fisikoak Norbaiti gauzak ezkutatzea. Norbaiti gauzak puskatzea. Norbaiti gauzak lapurtzea.					
Zuzeneko eraso fisikoak Norbait jotzea					



Beldurraraztea/xantaia/mehatxua Norbait mehatxatzea beldurrarazteko. Gauzak egitera behartzea. Armekin mehatxatzea.					
Sexu-jazarpena edo gehiegikeria edota jazarpen sexista Sexualki jazartza edo beldurtza. Sexu-gehiegikeriak. Sexua erabiliz norbait beldurtza, azpiratza, umiliatza, mintza edo zirikatza.					
Ziberjazarpena: Telefono mugikorren, e-mailaren, sare sozialen, txataren eta abarren bidez mezuak bidaltza norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko. Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrieta edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexting), eta gainerako mutilei edota neskei bidaltza edo Interneten esekitza.					

Ondorio esanguratsuak (jasotako informazioan oinarrituta) Azterketa orokor bat egin ondoren: esan al genezake beste pertsonarengan min eragiteko nahita izandako jokabide baten susmoa dagoela, jokabide hori errepikatu egiten dela eta ustezko biktima ez dela bere burua defendatzeko gai?

JAZARPENA	BAI	EZ
GATAZKA	BAI	EZ

GATAZKA izanez gero, neurri hezigarriak

--

JAZARPENA dela uste izanez gero, nola jokatu

--

.....n,ko,,.....

Parte-hartzaileen sinadurak:



2. ERANSKINA: ZIBERJAZARPEN KASUETAN ESKU HARTZEA

Askotan, jazarpenarekin batera ziberjazarpena edo jazarpen birtuala egiten da sare sozialen bidez eta teknologiak erabiliz.

Ziberjazarpena gailu digitaletan gertatzen den jazarpena da, hala nola telefono mugikorretan, ordenagailuetan eta tabletetan. Testu-mezuen, testuen eta aplikazioen bidez gerta daiteke, edo Internet bidez sare sozialetan, foroetan edo jokoetan, non pertsonek edukia ikusi, parte hartu edo partekatu baitezakete. Beste pertsona batiburuzko eduki negatiboa, kaltegarria, faltsua edo krudela bidaltzea, argitaratzea edo partekatzea barne hartzen du. Horrek beste norbaiti buruzko informazio pertsonala edo pribatua partekatzea ekar dezake, umiliazioa edo lotsa eraginez. Internet bidezko jazarpen batzuk legez kanpoko jokabide edo jokabide kriminal bihurtzen dira.

Zurrumurruak, mehatxuak, mezu iraingarriak, argazki barregarriak edo pertsona jakin bat taldeik kanpo uzteko kontsignak dira.

Ohikoena da ziberjazarpena berdinenean izatea, aurrez aurre ezagutzen diren adingabeen eta ingurune berekoen artean.

Ziberjazpenaren arriskugarritasuna hainbat faktorek azaltzen dute:

- Erasoa urrutikoa eta ustez anonimoa izateak arrisku-sentsazioa gutxitu eta erasoaren larritasuna areagotu dezake, edo, erasoaren fokuren kasuan, zuhurtziagabekeriaz azaldu.
- Mezuak sareen bidez zabaltzeko eta kontserbatzeko gaitasunak ere areagotu egiten du haien eragina.

Ziberjazpen-egoeretan esku hartzeak honako hauek barne hartuko ditu:

- Jazarpena jasotako adingabeari laguntzea, eta laguntza profesional gehiago behar den zehazten saiatuta.
- Gertakariak geldiarazteko eta konpontzeko premiazko neurriak: mezuak ezabatzea, profil faltsuak ixtea, etab.
- Jazarpena egiten dutenei ohartaraztea, euren familiei gertaeraren berri ematea eta jazarpen-jokabidea tratatzea.
- Teknologia berrien murrizketa, kontrola eta berheziketa erabilera arduratsuaren bidean.
- Berdinenean talde osoa teknologien erabilera arduratsuan heztea, ziberjazpenaren larritasuna eta dituen ondorio emozionalak, legalak eta abar argituz.
- Garrantzitsua da pertsona guztiak kontzientziatzea oinarrizko neurriak hartzearen garrantziaz, bereziki argazkiei, datu personalei eta abarri dagokienez.
- Aditzera ematea argazki edo mezu desegokiak zabaltzea konplize egitea dela; ez dago libertimendurik horretan, eta bai kaltea eta arriskua.


Ziberjazpen kasu batean, oinarrizko esku-hartzea da gertaerak poliziari jakinaraztea, mezuak jaso diren gailuen pantaila-argazkiak barne.



PROTOCOLO DE ACTUACIÓN FRENTE A LA VIOLENCIA EN
ESPACIOS DE EDUCACIÓN NO FORMAL

(ESPACIOS DE OCIO Y DEPORTIVOS)

PREVENCIÓN. DETECCIÓN. INTERVENCIÓN





INTRODUCCIÓN

Este documento que tenemos entre manos nace con la intención de conocer cómo actuar ante una situación de acoso que se puede dar en el ámbito de la educación no formal. Se ha realizado entre varios servicios municipales de Eskoriatza: Servicio de Juventud Y Educación, Servicios Sociales, Servicio de Prevención, Servicio Psicosocial y Socioeducativo y Gazteleku. Este grupo de trabajo se ha denominado **Mesa por el Buen Trato**.

Por el camino, nos hemos puesto en contacto con el centro escolar Luis Ezeiza y la ikastola Arizmendi para informarles de nuestro proyecto. En base al Protocolo de acoso escolar del Dpto. de Educación de Gobierno Vasco y que el Centro educativo Luis Ezeiza desarrolla, hemos elaborado la propuesta que se recoge en las siguientes páginas.

A lo largo del recorrido nos hemos dado cuenta de la importancia que tiene de cara a la prevención, conocer qué es una situación de conflicto, tener claras las diferencias entre las situaciones de conflicto y acoso y fomentar los buenos tratos.

Ahora bien, debemos reconocer que hemos llegado a la conclusión de que es difícil detectar una situación de acoso en los servicios de la educación no formal, ya que los niños, niñas y adolescentes dedican muy poco tiempo a la semana a nuestros servicios. Sin embargo, nos ha parecido interesante conocer cómo podemos responder cuando estamos ante una sospecha y acordar de manera conjunta cómo debe ser la intervención, ya que, aunque está bien enfocada en la escuela, creemos que en los servicios de educación no formal deberíamos saber responder ante una situación así.

Como ya se ha comentado anteriormente, también hemos sido conscientes de la importancia del fomento de las buenas relaciones, de su fuerza preventiva, en la que también trataremos de centrarnos a partir de ahora.

En las próximas páginas abordaremos diferentes conceptos relacionados con el acoso, la manera de identificar situaciones bien de conflicto bien de acoso, cómo podemos actuar ante una situación de acoso y propondremos una serie de medidas para fomentar las buenas relaciones de forma permanente.



MARCO LEGAL

La Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y a la adolescencia frente a la violencia (LOPIVI), en lo referente a los ámbitos del deporte y el ocio, establece lo siguiente:

Artículo 47. Protocolos de actuación frente a la violencia en el ámbito deportivo y de ocio.

Las administraciones públicas, en el ámbito de sus competencias, regularán protocolos de actuación que recogerán las actuaciones para construir un entorno seguro en el ámbito deportivo y de ocio y que deben seguirse para la prevención, detección precoz e intervención, frente a las posibles situaciones de violencia sobre la infancia y la adolescencia comprendidas en el ámbito deportivo y de ocio.

Artículo 48. Entidades que realizan actividades deportivas o de ocio con personas menores de edad de forma habitual.

Las entidades que realizan de forma habitual actividades deportivas o de ocio con personas menores de edad están obligadas entre otras cuestiones a:

